

ELAk ausardia handiagoa exijitzen du iruzur fiskalaren aurkako borrokan

Iruñea, 2016ko uztailaren 20a



0.- Sarrera

Nafarroan pairatzen ari den krisia eta babes gabezia handia ez zatekeen gaurko mailara iritsiko beharizan sozialak asetzeko moduko zerga- eta aurrekontu-politika bizkor bat egin izan balitz.

Jakina, zerga-politika boterean dagoenaren borondatearen eta ideologiaren baitako zerbait da. Hain zuzen, Nafarroan elite ekonomikoen interesen arabera erabakitzen da, eta zoritxarrez ez da aldaketarik izan.

Zerga-politikaren ezaugarri nagusiak hiru dira. Lehenik, diru-bilketa urriegia da: Nafarroako eta EB-28ko batez besteko presioa fiskalean BPGko 10 puntuko aldea dago. Nafarroan europar inguruko batez besteko presio fiskala berdinduz gero 1.800 milioi euro gehiago bilduko litzateke.

Bigarren ezaugarria egitura fiskal injustua da; diru-bilketaren erditik gora zeharkako zergetatik dator (alegia, ordaintzen dituenaren ahalmen ekonomikoa aintzat hartzen ez duten zergetatik), eta gainerakoa, zuzeneko zergetatik. Biltzen den diruaren %70etik gora lan-errentetatik dator.

Hirugarren ezaugarria berebiziko iruzur fiskala da, zeinak aurreko bi errealitateak areagotu egiten dituen.

ELA sindikatuak betidanik eman dio garrantzi handia gai honi, egoera zuzendu nahian; izan ere, fiskalitate azkar eta justurik gabe ezin baita gizarte-eredu aurreratu eta zuzenik iritsi. Horretarako proposamenak egin izan ditugu, eta hauek maiz helarazi izan dizkiogu Nafarroako Gobernuari.

Dokumentu honetan iruzur fiskalaren egoera zein den ikusi nahi dugu, honen aurrean Nafarroako Gobernuak eman nahi dituen pausoak aztertu eta proposamenak egin.

1.- Nafarroako iruzur fiskal maila onartezina da

Gobernuak eman nahi dituen pausoak aztertu baino lehen, eta proposamenak egin aurretik, beharrezkoa da Nafarroan bizi dugun iruzur fiskalaren egoera aztertzea. Ondorengoak iruzurraren mailaren erakusleak dira, eta nazioarteko egoera ere ikusiko dugu.

1.1.- Iruzur fiskalaren adierazleak

- *Batez besteko errenta aitortua*

Ukaezina da iruzur fiskal maila altua dela, eta gehienbat laneko ez diren errentetan gertatzen dela.

Honen adierazgarri, PFEZean jarduera nagusi gisa lan-errentak aitortzen dituztenen batez besteko errenta 2014an 20.441 eurokoa izan da; aldiz, enpresa-jarduerak dituztenen aitortutako errenta 13.556 eurokoa izan da. Hots, aitortzen den batez besteko lan-errenta enpresa-jardueretakoa baino 1,5 bider handiagoa izan da.

Datuok PFEZean aitortzen den etekin nagusiari dagozkio; beraz, estatistika honetan ez dira kontutan izan osagai bat baino gehiago duten pertsonen etekinak (esaterako, enpresa- eta lan-errentak, edota profesionalak, kapitalarenak...).

PFEZ-EAN AITORTUTAKO BATEZ BESTEKO ERRENTA(€). Nafarroa, 2009-2014

Iturria: Nafarroako Gobernua

	Rtos. Trabajo	Rtos. Actividades empresariales
2009	20.661	14.393
2010	20.500	13.939
2011	20.683	13.862
2012	20.255	12.378
2013	20.339	13.391
2014	20.441	13.556

Soldata ez diren errentetan dagoen iruzurra medio, PFEZeko diru-bilketaren %87,2 lan-errentetatik dator. Alegia, besteak beste soldata ez diren errentetan dagoen iruzur izugarriaren ondorioz zerga honen zama handiena ia guztiz lan-errentei leporatzen zaie. Hain zuzen, enpresa-errentetatik zerga honekin biltzen den diruaren %3,4 besterik ez dator.

- *Enpresen ia erdiak galerak aitortzen ditu*

Soldata ez diren errentetan dagoen iruzurra beste adierazle batek frogatzen du: Sozietateen Zergan enpresa askok galerak dituela esaten du.

2014an enpresen %46,2ak galerak aitortu zituen (batez beste 105.000 eurotik gorakoak).


Datu hau enpresek Sozietateen gaineko Zergan egiten duten iruzurraren erakusela da, bai ezkutuko ekonomiagatik nola ingeniarietza fiskalagatik.

1.2.- Iruzurraren jazarpenerako pertsonal ratioa

Nafarroa Ogasun pertsonalari dagokionez ELGEren azken postuetan legoke. Zehazki, ELGEko kide diren 34 estatuen artean Nafarroa 28. postuan topatuko genuke Ogasun-pertsonalaren eta guztirako biztanleriaren arteko ratioa kalkulatu gero; Ogasunean funtzionario bat dago 2.000 biztanleko, baina esan beharra dago administrazioak honi buruzko datu zehatzik ez duela ematen; alderantziz gertatzen da ELGEbidez dauden datuekin.

Hain zuzen, Nafarroak beste estatu batzuren aldean pertsonal erdia baino gutxiago du; esaterako, Frantziak pertsona bat dauka 979 biztanleko, Alemaniak 743, eta Belgikak 573.

Datuok agerian uzten dute posible dela, eta beraz, borondate politikoaren baitan dagoela, iruzur fiskalari jazaritzeko bestelako administrazio era bat; halaber, begibistakoa da Nafarroak ogasuneko pertsonala bikoiztu egin beharko lukeela inguruko estatuen parera iristeko.



2.- Nafarroako Gobernuaren Iruzur Fiskalaren Planari dagokionez

I. Planak iruzur fiskalaren jazarpenarako aurreko ildoari jarraitzen dio

Lehen ondorioa da plan honek ez diola aurre egiten Nafarroan dagoen iruzur mailari; aurkeztu den testuaren arabera, orain arte Nafarroan izan diren aurreko planen bide beretik doa.

Aurreko planak zehatz-mehatz juzkatu gabe, errealitateak agerian uzten du iruzur fiskal maila oso altua dela, hori frogatzen duten zantzu eta ikerketei, zein gizartean arazoaz dagoen ikuskerari erreparatuz gero. Argi dago, iruzurra handia delarik, Nafarroan haren jazarpenak ez duela arrakastarik izan. Egoera aldatzeko asko dago egiteko eta hobetzeko, eta iruzurraren jazarpenarako politika berari eutsiz gero emaitza berbera lortuko dugu.

Hain zuzen, ELAren ustez irtenbidea ez da orain arte egin dena eguneratu edo egokitzea; aitzitik, iruzurraren jazarpena areagotu eta indartu beharra dago.

II. Plan honek ez ditu benetako beharrizanak aintzat hartzen

Iruzur fiskalaren jazarpen eragingarria ezinbestekoa da gizarte justuago baterantz aurrera egin nahi izatekotan.

- ***Egoeraren irakurketa positiboegia***

Planak irakurketa positiboegia egiten du iruzur fiskalaren jazarpenarako aurrekarienez; izan ere, aitortzen da emandako datuak ez direla errealak, edota litekeena dela ez izatea.

Hau da, Gobernuak azaleratzen den iruzur fiskalaren inguruko datuak ematerakoan, bi aldiz gehitzen ditu kantitate berberak, benetako emaitza zenbatekoa den jakitea ezinezkoa eginez. Gainera, onartzen da gauza bat dela azaleratzen den iruzurra eta bestea, sartzen den dirua, baina honi buruzko daturik ez da ematen.

Batu ez daitezkeen kopuruak batu eta benetan biltzen dena ezkutatuta, Ogasunak pentsarazi nahi du iruzur fiskalaren jazarpenak benetan dituenak baino askoz emaitza hobeak dituela.

Irakurketa positibo hau salatzeko modukoa da, eta behar-beharrezkoa da iruzur fiskalaren jazarpenaren benetako emaitzak ezagutaraztea, azaleratzen dena eta benetan biltzen dena alegia.

- ***Orain arteko bideari jarraitzearekin konforme***

Hau kontutan izanik, Planak iruzur fiskalaren jazarpenari esker egingo den diru-bilketa aurreikuspena azken urteetako kopuruekin alderatuz gero, agerikoa da helburua lehengo bideari jarraitzea dela.

Beraz, ezartzen den helburua da datozen lau urteetan urteko kudeaketa bidez batez beste 60 milioi euro biltzea, azken zortzi urteetan batez beste 61,9 milioi bildu direlarik, eta ikuskaritza bidez 50 milioi biltzea, azken zortzi urteetan batez beste 46,3 milioi bildu delarik.

- ***Soldata ez diren errentak ikuskatzeko baliabideak ez dira nahikoak***

Ikuskaritza bat izateko probabilitatea 447tik 1ekoa da; hots, aitorpen guztiak ikuskatzerako 447 urte igaroko dira.

Ez da ulergarria, ez justizia sozial eta fiskalaren ikuspuntutik, ezta diru-bilketaren aldetik ere, behar beste bitarteko ez jartzea errenta guztiak preskripzio epearen barnean ikuskatzeko.

Hain zuzen, ELAk proposatzen du Nafarroako Ogasunari behar adina bitarteko (pertsonal zein materialak direla ere) ematea preskripzio epearen barnean errenta guztiak ikuskatu ahal daitezen.

Beraz, iruzur fiskalaren jazarpenean jauzi bat egitea ez da helburua; aitzitik, asmoa da orain arte egindakoa eguneratzea eta lehengo ildoari jarraitzea, besterik ez.

III. Ez dago argi plantilla zenbat gehituko den

Argi dago iruzur fiskalaren jazarpena ezin dela eragingarria izan antolakuntza eta baliabide nahikorik ez badago.

Zehaztu egin behar da plantilla zenbat eta nola gehituko den.

Gure ustez, beharrezkoa da argitzea nafar Ogasunaren osaera, guztira zenbat lagunek egiten duten lan, hauetako zenbatek diharduten iruzur fiskalaren jazarpenean, kolektiboan zenbat hutsune dauden, hauetako zenbat osatuko diren, eta zenbat pertsona izango diren guztira iruzur fiskalaren jazarpenean, behin plan hau aplikatzen hasten denean; bereizi beharrezkoa da zenbat pertsona izango diren ikuskatzaile, kudeatzaile edota zerga-agente, baita zein funtzio izango duten ere.

Halere, planak berak plantilla gehikuntza honi buruz esaten du “oso *murritza*” izango dela; aitzitik, Gobernua sostengatzen duten lau indar politikoen arteko Akordio Programatikoak dio iruzur fiskalari aurre egiteko beharrezkoa izango dela pertsonala “*zeharo gehitzea*”.

ELAk galdegiten du finka daitezela ikuskatze helburuak (urteko soldata ez diren errentetako ikuskatuko dituzten zergadunen portzentajea), eta helburu horien arabera gehitu dadila pertsonala. Hala ez egitea orain arteko ildoari jarraitzea da.

IV. Zergen inguruko heziketa, justizia soziala eta fiskala

ELA bat dator beharrezkoa eta komenigarria dela zergen inguruko heziketa sustatzea. Herri administrazioak bultzatu behar du eztabaida, nola iruzur fiskalari, hala zerga- eta aurrekontu-politika orokorrari buruzkoa dela ere.

Alabaina, zergei buruzko heziketarekin batera ezinbestekoa da justizia fiskala bermatzeko egitura publiko bat izatea, eta sektore jakin batzurekiko iruzur fiskalarekin permisibitatez jokatzeko delako ustea ezabatzea. Heziketa ez da eragingarria izango gizarteko sektore batzuk inpunitate handiz iruzur egiten dutelako sentipenak dirauten artean.

Hain zuzen, herri-administrazioak ematen duen informazioa gehitu behar da, eta informazio hau jende guztiarentzat eskuragarri izatea. Beharrezkoa da gizarteak ezagutzea nafar Ogasunaren egitura zein den, iruzur fiskalari buruzko datuak, egiten diren ekinbideak, etab.

V. Gizartearen benetako parte hartzea

Iruzur fiskalaren jazarpenerako aurreko planak gizartearen inolako parte hartzerik gabe onartu ziren. Politika egiteko era hau ohikoa izan da Nafarroan, eta aldatzea ezinbestekoa da.

Gizartearen parte hartzea ere heziketa fiskalarekin lotuta dago, beharrezkoa baita gizarteak politika hauetako partaide izatea.

Horrenbestez, egokia da Iruzur Fiskalaren eta Ekonomia Ezkutuaren Jazarpenerako Batzordea sortu izana, zeinetara gizarteko hainbat sektore deituak izan garen.

Haatik, gizartearen benetako parte hartzea ezin da mugatu bilera informatiboetara. Parte hartzeko gune hauei, gainera, behar besteko erabakitze ahalmena ere eman behar zaie, horretarako beharrezko diren mekanismoen bidez, eta Nafarroako Gobernuak hitza ematea erabaki horiek aintzat hartuko dituela.

VI. Ardura politikoa

Zerga-sistema bidezkoa izango bada eta Nafarroan dauden beharrizan sozialak osatzeko beste diru bilduko badu, soldatak ez diren errentetan dagoen izugarrizko iruzur fiskalari heldu behar zaio. Iruzur fiskalaren jazarpen zorrotza lehentasuna bilakatu beharko litzateke. Borroka hori borondate politikoaren baitan dago.

Aurkeztu den plan hau ez da egoera larriak eskatzen duena. Ardura politikoa Nafarroako

Gobernuari eta bera babesten duten lau alderdiei dagokie. Orain arte egindakoari eustea ez da politikak aldatzea.

3.- Hauek dira ELAren proposamenak iruzur fiskalaren aurrean

ELAk betidanik egin izan ditu zerga-iruzurraren eta -saihestearen jazarpenarako proposamenak, eta hauek taxutzen dute sindikatuak izurri honekiko duen posizioa. Beraz, proposamenok izango dira oinarria Iruzur Fiskalaren Jazarpenarako Plana epaitzerakoan eta kritikak, proposamenak eta ekarpenak egiterakoan.

2.1.- Iruzur fiskalaren jazarpena

- Ikuskatze jarduera areagotu. Gehienez lau urteko epean soldata ez diren errenta guztiak ikuskatu. Horretarako behar den pertsonala balioetsi eta epe zehatzetan planifikatu.
- Ikuskaritzaren lan metodoak aldatu:
 - Jarduera iruzurrik larrienetara berbideratu: enpresa eta ondare handiak, testaferroak, paradisu fiskalen erabilera, BEZeko iruzurra, faktura faltsuak, etab.
 - Ikerketa indartu, eta ez mugatu egiaztatze hutsera.
- Funtzio teknikoen eta ikuskaritzaren gaineko kontrol alderdikoia ekidin.
- Ikuskatze kopuru handiagoa egin behar denez, zerga-administrazioako baliabideak (ekonomiko, tekniko zein pertsonalekoak) zeharo gehitu, batik bat iruzurraren jazarpena bideratutakoak, europar batez bestekoarekin parekatu arte.
- Delitu fiskala errazten dutenen (profesionalak, despatxuak...) jarduera zigortu, beren eragina galarazte aldera.
- Paradisu fiskalen erabilera eragotzi, haietan diharduten pertsona eta erakundeak, batik bat finantza-erakundeak, zigortuaz:
 - Beren nortasun juridikoa ez aitortu, berton jarduteko modurik izan ez dezaten.
 - Zerga berezi gogor baten bidez zigor ekonomikoa ezarri, disuasiorako izan dadin.
 - Bizilekuz paradisu fiskalen batera aldatzen diren pertsona edota sozietate guztiak ikuskatu.
 - CDIrik (informazioa trukatzeko mekanismoa) sinatu ez duten herrialdeetako gastuak kenkari gisa ez onartu.
- Iruzurraren aurkako diziplina-arteko bulego bat sortu; erakunde artekoa litzateke, eta ogasunaren, polizia fiskalaren eta fiskaltzaren ekintza koordinatuko luke.
- Polizia fiskala sortu:
 - Zerga-Administrazioaren menpekota litzateke, eta poliziako, Muga-Zaintzako eta abarretako unitate bereziak bilduko lituzke.
 - Polizia judiziala litzateke honako kasuetarako: delitu fiskalak, kontrabandoa, kapitalen zuritzea, ondasunen ebaste eta dokumentuen faltsutzea.
- Fiskaltza eta Auzitegiak (epaileak eta polizia judiziala) espezializatu iruzurraren eta iruzur handiaren (delitu ekonomikoak, zuritzea...) jazarpenean.
- Informazio gehiago eman zergei eta iruzur fiskalaren jazarpenari buruz. Informazioa eskuragarria izan behar da iruzur fiskalaren aurkako heziketa hobetze aldera. Nafarroan zerga kontuetan ematen den informazioa oso urria da.
- Parte hartze sozial benetakoa eta eragingarria behar da. Gizarteak zerga-politikan eta iruzur fiskalaren jazarpenean hartzen diren erabakietan parte hartu behar du. Horretarako eratu egin behar dira erabakitze ahalmena duten parte hartze mekanismoak, eta edukiz bete behar dira; zerga-politikari eta iruzur fiskalaren jazarpenari buruzko erabaki guztiak horietatik pasatzea derrigorrezkoa izan beharko litzateke.

2.2. Zerga-saihestearen jazarpena

- Zerga-saihestea, hots, zerga gutxiago ordaintzeko aukera ematen duten mekanismo legalak, eragotzi. Mekanismo hauetaz batik bat fortuna handiak eta enpresak baliatzen dira; horrela, edozein lan-errentak baino zerga gutxiago ordaintzen dute. Ezin da onartu legeak errotik injustua den zerga-sistema bat babestea. Hain zuzen, beharrezkoa da:
 - Arrazoi fiskalak medio beren operazioak lekutzen dituzten talde multinazionalak eta Nafarroan diharduten beste enpresak zergapetzea.
 - Zergak saihesteko gaur dauden beste moduen jazarpena; errealitate berri honek ekiteko modu berriak eta jazarpenerako beste baliabide batzuk eskatzen ditu. Estatu desberdinetan jardun eta ahalik zerga gutxien ordaintzen duten multinazionalen kasua horren adibide bat besterik ez da.